

ARRANTZOA

Laborea gutxi zutenen gero, iparraldeko euskaldunek beste bizibide batzuri eldu zioten antzina antzinatik. Esate baterako, arrantzoari.

Itsas aldeko jendeek, kondaira-aurreko garaietatik, itsasoko gauzak zituzten beren janari; baina itsas aundiko arrantzoa oso berandua irixten dira euskaldunak; batez ere itsas ertzeako arrantzoaren aldean, oso berandua.

Itsas aundiko arrantzoak erakunde bereziak eskatzen zituen, nahiz gizarte aldetik nahiz teknika aldetik, eta euskaldunak holarikil: gabe bizi ziren antzintean. Caro Barojak "Los Vascos" bere liburuan dioenez, normandiarrek erakutsi zieten euskaldunei itsas aundiko arrantzoa. Beraz, IXgarren mendean ekiten diete euskaldunek itsas aundiko arrantzoari.

Balea zuten batez ere beren arrantzoa. Bale arrantzoak dokumenturik zaharrena, 1059, urtekoak dira. Urte horretan ematen zaio Baionari balcaren aragia saltzeko eskubidea.

Asi berriari, kostatik urbil atzematen zuten balea. "Bizkaitar balea" zeritzan. Bizkaiko itsas bazterrean etortzen bait zen neguan.

Urrituen asi zenean, arrantzaleek iparraldera jo behar izan zuten.

1351. urtean, Ingalaterrako erregeak baimena ematen die euskaldun arrantzaleeiango eta Britaniako itsasotan balea arrapatzeko.

Gerora, balcari jarraikitik, Noruega, Spizbergo, Groenlandia, eta Terranovaiko itsasotara zabaltzen dira. Bakalooa an aurkitu zuten.

Ez da izkutatu Euskal Erriari antzinatik datorren bizibide hau. Baina bada zailtasunik gaurregun. Tresna eta erakunde berri jantzi beharra dauka iraungo bada. Zaharkituriko erakunde batek ahuldurik aurkitzen da. Batez ere itsas ertzean egiten dena.

Gauza asko behar du berritzeko. Lehenik arrantzoa egiteko tresnak eta teknikak berri behar ditu. Salmenta eratu behar du. Oraindik lehorreko zenbait ertzean ez dago arrai gordeko duen izoztegitik. Aragia baino gutxiago jartzen da otorduetan.

Ugaldu dira azken urte hauetan itsasontzi berriak, baina ez da ugaldu arrai kaletan. Zenbait arrai lehen baino gutxiago atzematen da. Ez da arriaren salneurria gastuaren eta beste janariaren neurrian garestitzen.

Estaduarien diru laguntzak ere industriara gehiago zabaltzen dira itsasora baino. Ontzi jabe askok ez daukate zenbait gasturi erantzuterik. Dirua ugaltzeko baino zorrak aunditzeko arrisku gehiago du zenbait ontzi jabeak.

Atzendurik daude mariñelen seguro, zahar-sari eta elkarteak. Langileriarenak baino askoz motzago daude mariñelenak.

Honeka bizirik irauten bada ere arrantzoak, gaixorik iraungo du. Eraberritu eta indarberritu beharrean aurkitzen da arrantzaletan mundu hau. Arriskuz, bakardadez, ukapenez, premiaz betelako mundu hau.

OHARRA

Iruñeko gorabeherak direla eta, ez du behar bezala lanik egiten Z. Argiaren irarkolok. Horregatik irixten zaizu egun batzuk atzeraturik. Zenbait herrietako jaiak ere ez ditugu aipatzen, azken goibelaldiak

jai giroa moteldu bait du herri hoietan.

Bidezko da guk ere borrokaren ondorioak jasatea.

Ondo artuko duzula uste dugu, beraz, gure jokabidea.

ZERUKO ARGIA

EGUN EGUNEKOA

Eskuin asko da ezkerrean arrakastaz arropzaturik ezkerre aurrera hasten dena. Inoiz akarkeria batez edo suertez ongi ateratako kale batez txaloak jasorik, beti ezkerre jo nahi duena. Sinestu egin du ezkerre dela. Guxienik sinestrazi egin nahi die ikusleei ezker dela.

Ez du, ordea, aurreneko kuadrotik pelota ateratzeko indarrik, ez du besagelnez pelota ikutzeko ere taxurik, ez du bitara jotzeko moldearik. Ez da ezkerre eta hala dela uste du. Eskuina da eta ezkerre ari dela sinestrazi nahi dio jendeari. Grazia egiten duelakoan jendea nazkatu besterik ez du egiten. Ez ezker eta ez eskuin diren gizarajo batzuk bakarrik jotzen diote txalo.

HARANZABAL

IDAHO

Urtebete joan da Idahoko lurrede zabal urrunetan izan nintzenen geroztik.

Bidaiek (irakurleak dakikeenez) ez beti nik neure kabuz eta deslar hautaturik, eta «Globe Trotter» bat ez izanik ere, munduan zehar pitin bat ibilia naizela iruditzen zait. Eta euskaldunen multzoak antz lekutan ezagutak ditut. Zer-gatik, beraz, Idahotik ekarritako oroitzapena denetan gailen? Zer-gatik ote?

Hauxe hasi naiz gaur neure buruan ikertzen.

Baina ez naiz neure buruz mintzatzuko; nahiz-eta, hein batez, idazlea beti ere, eta besterik ezinean, bere buruz mintzo bada ere. Oso neurek nituzkean arrazoietatik at, beraz, zer gailen ezaten ote du Boise-ko kanpooan igarotako egoaldi guztien artean?

Nosti! Boise, Bruselan eta nurb-nahi, bi multzotan bana daitezke bertako euskaldunak; batera, inoiz sorterrira bihurtuz osotara etsi, eta zeharo bertakotzen saiatzien direnak bil ditazkegu; bestera, berri-berri, besoak han, baina bihotzak eta esperantzak Euskal Herriari atxiki dituztenak.

Hots, Parisen, Bruselan, Londresen, iruditzen zaidanez, euskaldun gehienek, noiz izanen den ez badakite ere, «halako batez» etxera etortzeko asmoa dute. Kilometro gehiegi ez izanik, nahi izanez gero bederen etorri egin litzekela iruditzen zait. Parisen batez ere, eguneroko bizikeraren gogorak, gogoren mailan bederen, uxatu egiten ditu hara joandakoak, eta sorterrira itzultzera bultzatzen. Oso amorraturik ere, eta beharbada amorrurengatik beragatik ere bai, noizpait honeratzeko asmoa ez da haien gain irauungi. Bakantzen, eta (ustez!) nahi dutenean, honera etor, haizea har, garo-usaina hatsar, eta berri... «urrungo lantegia» bihur.

Brel-ek edeki kantatu duen Flan-dreko zelai goibel azkengabea, Jon Mirande-k madarikatzen zuen paristar bulego ziztrina, Londresko giza-itsaso gaitza, hor daude, bai, eguneroko bizieri itsatsirik. Baina, uste-berri, uste gerti egin daitezke. Atzerrialdiak, osoa gerta badaiteke ere, ez dirudi osoa; ez bide dator-ki inori goitiki behera eta ezin bestearen ezarria. Londresko, Bruselako, Pariseko euskaldunek, ene ustez, ez dute BETIRAKO urrundu direnik sinesten. Noiz-behinka labur daitezkeen atzerrialdean daude, hori bai; pitin bat bolara baterako lan-teria urruti atxeman duenaren antzera.

Idahon, berri, besterik da, iruditzen zaidanez. Urruti ageri da Euskal Herria Boise-tik, urrutiegi, oso urruti, BETIRAKO URRUTI.

Arrotza da giroa arunt Idahon. Hizkuntza arrotz, bizimodu arrotz, basamortu gaitzak arrotz, mendi zuri eskergak arrotz, bakardade azkengabeak arrotz, indioak eta chicanok arrotz, ekonomiazko bizi-maila gorena arrotz, herrien hiri-gintza arrotz, Far-West hartako azken «arna» harrigarriak arrotz... Idahon atzerria da osoki.

Eta Idahotik, nahi izanik ere, ez bide da itzultzen; ez da Parisetik bezala itzultzen. «Jet» modernoen uste zindio hau nitiin batez arindurik ere, askoren bihotz zolaren hondan ehortzirik ideia berbera datza, nik uste: «Adio ene maitea, adio sekulako!». Betirako aurrer, bai, hanarteko maitetasun guztiei, betirako aurrer sorterriarri. Eta BETI hitzak oihartzun ozenak pituzten ditu gizonarengan, hilkorra dela uste baino hobeki dakielako.

Hots, ederki zion berriki Escarpit-ek, txalgarria dela, ikasle eta intelektual langileen asmoa: langilearen egoera bolara batez zuzenki, buruz buru, lanean bertan eta esku-ahurrak maskuririk, ezagutzea; baina —zion kaselari fama-tuak— langile-egoeraren betirako-tasuna galtzen dutelarik, funtsezkoena galtzen dute hain zuzen: EZIN IHES EGITEA.

Eta, uste dudanez, Idaho-ra datorrena, betirako etorri da; eta badaki, eta eguneroko frogatzen du.

Nola etorria, edo nori edo zerk etor arazia, Idahora, bestalde? Atzerrialdi bati, berriaz hautatua izan denean, «turismo» deritza; eta erdizka bederen (ustez bederen!) utz daitezkeen atzerrialdia, ez da, izan, egiazko atzerri-muinez oratua.

Idahoraz gero, berri, horrelakorik ez. Bizi beharrrak sortu du Euskal Herriari euskaldun «menturazale» eta «ibilitari» horren gezurra. «Ford» edo luze diztirantean atzetik ere, borondatek AT mamitu da bidaia eta sorterrira utzi-beharra; atzerrial-dia (betirakoa gehienetan) KANPO-TIK onar erazirik bezala nagusitu zaie hangoei. Atzerria, kasu hone-tan, inguramendua edo eguraldia bezalatsu itsasten da, nahiaz bestaldetik.

Eta Sun Valley-z oroit u naiz; No-rugeko fjordekin batera neure bizi guztian ezagutu dudak eskual-derria ederrena. Hantxe hil dira aruten, ordea, Idahoko Sekretario den Zenarruza jaunaren bi gurasoak, igazrik biak bizirik ezagu-tuta. Mende honen haseran hara iritsiak, hantxe hil dira, atzerriari; eta olkerki-ametsik oparoenak mami daitezkeen eskualde zoragarri har-tan zentu, Heriotzak han ere kol-patzen baitu.

Izadia, naturala, ezin ederrago, ezin birjinago, ezin aratza. Amets guztiak zilegi; baina... han.

Eta ximist batek argitu nau ba-atean: arrotz... betirako... irten ezin... batzerrak eder, miresgarri... ametsak oro zilegi... baso eder bai Payette-Lake ezin ederragoaren ondoan... hiltzeria bertan kondenu-rik... Gizonak Gizonaren zortea zaito Idahon euskaldunari! Honetek mar-katu nau, eta ez nekien! Parte ba-teen bederen hauxe izan daitezke etia.

Eta Kafka-z oroit u naiz, eta Becket-ek, eta Jeans astronomoaz; eta, nola ez, Pascal-ek: «Gizonaren itsutasuna gabezia eta eskasia ikustean: Kosmo guztia mutua, eta gizona abandonaturik eta argirik gabe, itxuraz mundu zoko xume honetan errebaturik, bere burura bildurik antzematen; bere burura tan nori ezarri ote duen ez da-kielarik, zertara etorri ote den eta hil ondoren zer bilakatuko ote den ezin ulerturik, eta inolako ezagu-eraz jabetzeko gauza ez delarik, dardaratu egiten naiz; gizon bat loak harturik estekatu, eta uharte urte soil bildurgarri batetara era-manda, iratzeratzen bere hartatik nondik edo nola ihes eginen ezin asaturik, lastu egingo litzakeen bezala»...

Ahaztu egin ohi zaigun geure atzerri-tasun funtsezkoak pituzten

nigan Boisean, orain konprenitu du-danez. Giza-zorte izkutua da nigan euskaldun urrun haien egoera, ene ispilua izan zeren; eta horregatik daramazki bihotzean itzaturik.

Atzerria hil beharra! Horra hor Idahon-en mezu hitz gabea. Etsi be-harrrak arrotzago egin ezaten euskaldunak; eta ezin etsiak malenko-niatsuago, zoritxarrekoago eta tri-ste-ga. Egia zuen Irazusta zorigal-tzekoak. Eta egia dute hurrengo belaunean, amerikar asko, eta oso euskaldun gutxi aurkitu uste dute-nek. Idahoko euskaldunen barne-egoera latze-gia baita. Ezin eten, ezin itzul. Ezin aukera. Seme-ala-bentzako horrelako kinka gaistorik nahi ez izateaz, nor harrituko? Ziri edo zart egin behar horretan, ge-hienek: «Adio sekulako... gure on-dokoek bederen!»...

Eta Parisen ikusi ohi nuen Ja-bier Landaburu kezkatuaren aitort-samin hura bururatzen zait: «Lo más terrible sería para mí termin-ar un día enterrado en uno de estos cementerios de banlieu de París». Eta ez behin bakarrik en-tzuna, ez pentsa. Giza-jo! Han hil baitzen hura ere, zai, gaur gor-putza Donibanen badatza ere.

Atzerria hil beharra! Gizon oron-ren patua. Eta honengatik, nik uste, Idahoko oroitze-penak denetan gailen.


Atzerria hil beharra... Atzerria-tertean hil beharra ere bai! Ahazturik hil beharra, bai; baina arrotzen artean eta ilarako azkena hiltzeko segurtantzia ere bai. Horra hor Idahoko euskaldun multzoaren geroa: arrotz gisa suntsitu beha-rra.

Eta honek ere, zalantzarik ez, inkontzientearren mailan bederen, oso ilupetean bestelaturik ere, Euskal Herriaren irudia izan date; eta berri ere, hortaz, ene biho-tzean itsatsi...

Idaho! Atzerria hil beharra! Kaf-ka judua zen, Camus arjeliarra, Unamuno euskalduna, eta hirurok beren herrian jatorrizko izaeraren ukatazile. Zer-gatik ote?

Pascal... janseniarraren zen, eta de-serriari ikusten zuten gizona. Ezer sakonik esan ote lezake bestela atzerriaren gogorra, herbesteuz gure garratzik inoiz dastatu ez lukeenek?

LARRESORO



Bertatik itzultzerik izuten ez duen parajea, Idahon.

ZERUKO ARGIA

Zuzendaria: MIREN JONE AZURZA

ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Arago-ko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.* Buriada-Pamplona). Donostia: Okendo, 22. Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Barraun 300 pezeta
Korreo batasun-
tako errietan 350 pezeta
Atzerrietako bes-
te errietan 370 pezeta
Aldez Aurrez gal-
detu

Salmetan (ale
baketitz) 7 pezeta

Irakela:

«Gráficos Navas»
A. Adoza, 1 IRUITIA
D. L.: NA. 86-1866